

PIZZA KARBONARA

written by Errezetak



Coronabirus madarikatu honen ondorioz etxean denbora dezente pasa dugu eta, ahurrekin arratsalde pasa bat egiteko, zerbait pentsatu beharra zegoen.....

200ml Esne-gain likidoa
200gr Hirugiharra
1 Bola Mozzarella gazta
6 Barrengorri
Piperbeltza
100gr Gazta marratua
1 Pizza masa



Erositako masa bat erabili dugu errezeta hau prestatzeko.



Lehendabizi **hiru-giharra** moztuko dugu. Zartagin batean pittin bat frijitu, koipea askatu arte, gorde.



Barrengorriak xerretan moztu eta aurreko zartaginean pittin bat egin, gorde.



Ondoren **esne-gain** likidoa gehitu eta gaztaren erdia 50gr, sukaldatu gazta desagertu arte.



Pizza masa zabaldu eta 3-4 koilarakada esne-gain saltsa gehitu, koilararekin masatik zabaldu.



Ondoren mozzarella gazta gehitu (lehenago txikitua izango dugu), hirugiharra barrengorriak eta geratzen den gazta marratua.



Geratzen zaigun gazta eta esne-gain saltsa gehitu, azkenik piperbeltza hautsezatu.



Labea 200° tan bero dugula 15 minutuz labekatu.

Zerbitzatu.

